***Laugarren artikulua.–*** Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 16ko 223/2001 Dekretuko 11. artikuluari puntu berri bat eranstea (5 zenbakia izango duena). Honela gelditukoda da:

«5)- Azkenik, Zerbitzu Orokorretako zuzendariari dagokio kontratu txikiekin zerikusia duten gastuak baimendu eta onestea».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Gernika-Lumon, 2004ko ekainaren 1ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

## KULTURA SAILA

### Zk-3086

94/2004 DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea arautzeko dena.

Kirolari buruz ekainaren 11n emandako 14/1998 Legearen bitartez, kirol-lehiaketetan edo kirolaren inguruan gertatzen den indarkeriaren aurkako baliabideak eta tresnak sustatu eta ezarri nahi dira, eta lege horren 99. artikuluan adierazten denez, kirol-arloan sortzen den indarkeriaren aurkako batzordea sortuko da, kirol-arloan eskumena duen Sailari atxikita, eta kirolean izaten den indarkeria prebenitzeko zereginak esleituko zaizkio.

Aipatutako legearen arrazoi-azalpenean adierazten denez, gizartea gero eta arduratuago dago indarkeria, oro har, areagotzen ari delako; horri lotuta, kirol-arloan gertatzen den indarkeria gizartean gertatzen denaren isla baino ez da, haren erakusgarri konkretua, eta indarkeria-mota horri aurre hartzeko neurriak hartu behar dira berariaz, kirol-jardunak non eta nola egiten diren aintzat hartuta. Horrenbestez, kirolari lotuta sortzen den indarkeria zenbaterainokoa den ikusita, ezin da denboran gehiago atzeratu indarkeriari aurre egiten eta indarkeria ezabatzen lagunduko duen organoa ad hoc sortzea, formalki eratzea eta arautzea.

***Artículo Cuarto.–*** Se añade un nuevo punto, (con el numero 5) al artículo 11 del Decreto 223/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo con la siguiente redacción:

«5)- Por último, a la Directora de Servicios Generales le corresponde la autorización y la aprobación del gasto en relación con los contratos menores».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Gernika-Lumo, a 1 de junio de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### N°-3086

DECRETO 94/2004, de 25 de mayo, por el que se regula el Comité Vasco contra la violencia en el deporte.

La Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte, que trata de impulsar el establecimiento de instrumentos de lucha ante la violencia en las competiciones deportivas, o en torno a ellas, contempla en su artículo 99 la creación de un comité contra la violencia en el deporte, órgano que es adscrito al Departamento competente en materia de deportes y a quien se le atribuyen funciones relacionadas con la prevención de la violencia en materia deportiva.

Como dice la Exposición de Motivos de la citada Ley, existe una creciente preocupación social por el incremento de la violencia en general, no siendo la relacionada con el deporte más que una manifestación singular de la que existe en la sociedad, pero que precisa de determinadas medidas particulares en atención al medio en donde se desarrollan las actividades deportivas. Por dicha razón, y a la vista de los reiterados acontecimientos violentos que se manifiestan en el seno del deporte, resulta inaplazable la creación formal y regulación de un órgano ad hoc que contribuya a erradicar dicha violencia.

Eskumenei dagokienez, aipatutako 14/1998 Legearen 99. artikuluan argi eta garbi adierazten da Eusko Jaurlaritzari dagokiola kiroleko indarkeriaren aurkako batzordea sortzeko eta arautzeko eskumena, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzari atxikitako organoa baita eratzeko den batzorde hori.

Horrez gainera, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzeko otsailaren 5ean emandako 34/2002 Dekretuan, 2.i) artikuluan, Sailak dituen kide anitzeko organoen artean dago jasota Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea.

Horrenbestez, Kultura sailburuak proposatuta, Aholku Batzorde Juridikoaren oniritzia jasota, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko maiatzaren 25ean egindako bileran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Kultura Sailari atxikitako organo modura, Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea sortzea eta arautzea, horixe da dekretu honen xedea, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolari buruzko 14/1998 Legearen 99. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

*2. artikulua.–* Izaera.

Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea organo burujabea da, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari atxikitakoa, sail horren egitura hierarkikoan sartuta egongo ez den arren.

*3. artikulua.–* Betekizunak.

Kiroleko indarkeriaren aurkako batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Euskal Herrian egiten diren kirol-lehiaketetan sortzen den indarkeriari buruzko datuak jasotzea, aztertzea eta argitaratzea urtero, eta txostena osatzea urtean behin.

b) Kirolean sortzen den indarkeriaren arrazoiak eta ondorioak aztertzeko ikerlanak eta txostenak egitea eta onartzea.

c) Kiroleko indarkeriari aurre egiteko prebentzio-programak onartzea eta ekintza konkretuak sustatzea.

d) Aholkuak eta gomendioak ematea kirol-arloko klubei, taldeei, elkarteei, federazioei eta kirol-lehiaketak antolatzen dituzten gainerako pertsona zein erakundeei, baita kirol-instalazioen titularrei ere.

e) Kirol-lehiaketak, kirol-diziplina eta kirol-instalazioak arautzeko xedapenak bideratu behar direnean, proiektu horiei buruzko irizpena ematea.

f) Batzordearen ustez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legean jasotako arau-hausteren bat egin duten kirol-arloko antolatzaileen aurka, ikusleen aurka zein beste edozein pertsonaren aurka zehapen-espedientea has dadila eskatzea dagokion organo eskudunari.

Desde el punto de vista competencial, el artículo 99 de la citada Ley 14/1998, es muy claro respecto a la competencia del Gobierno Vasco para crear y regular un comité contra la violencia en el deporte pues constituye un órgano adscrito a la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Además, el Decreto 34/2002, de 5 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, en su art. 2.i), recoge entre los órganos colegiados del Departamento, el Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 25 de mayo 2004,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto

El presente Decreto tiene por objeto la creación y regulación del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte, previsto en el artículo 99 de la Ley 14/1998, del Deporte del País Vasco, como órgano adscrito al Departamento de Cultura.

*Artículo 2.–* Definición.

El Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte es un órgano independiente, adscrito al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, aunque no se integrará en su estructura jerárquica.

*Artículo 3.–* Funciones.

El Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte tiene las siguientes funciones:

a) Recoger, aprobar y publicar anualmente los datos sobre la violencia en las competiciones deportivas celebradas en el País Vasco y elaborar una Memoria anual.

b) Realizar y aprobar informes y estudios sobre las causas y los efectos de la violencia en el deporte.

c) Aprobar programas de prevención de la violencia en el deporte y promover acciones concretas.

d) Elaborar recomendaciones a clubes, agrupaciones, federaciones deportivas y demás entidades o personas organizadoras de competiciones deportivas y titulares de instalaciones deportivas.

e) Informar sobre aquellos proyectos de disposiciones en materia de competiciones deportivas, de disciplina deportiva y de instalaciones deportivas.

f) Instar al órgano competente la incoación de expediente sancionador a las y los organizadores, espectadores y cualquier otra persona que, a su juicio, pudiera haber incurrido en alguna de las infracciones tipificadas en la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

g) Antzeko helburuak dituzten instituzio eta erakunde publiko zein pribatuekin harremanak eta lankidetza bultzatzea, batez ere, Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseiluarekin.

h) Kiroleko indarkeria erabat ezabatzen lagundu lezakeen beste edozein eratako eginkizunak.

*4. artikulua.*– Osaera.

1.– Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea osatuko duten kideak hauek izango dira:

a) Kultura sailburua izango da batzordeburu.

b) Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea izango da batzordeburuorde.

c) Kirol zuzendaria.

d) Foru Aldundietako hiru ordezkari, foru-aldundi bakoitzetik bat.

e) Euskadiko Kirol Federazioen Batasunak izendatutako bi pertsona, euskal kirol-federazioen izenean.

f) Udal Administrazioen izenean, pertsona bat izango da batzordekide, Kultura sailburuak izendatu, eta udal interesen aldeko euskal elkarteek proposatutakoa.

g) Kirol-munduan sona handia duen pertsonaren bat ere izango da batzordekide, Kultura sailburuak proposatuta.

h) Segurtasun-arloan izen eta sona handia duten bi pertsona, Herrizaingo Sailak izendatutakoak.

i) Euskal Unibertsitateko zientzia-arloan sona handia duen pertsonaren bat ere izango da batzordekide, Kultura sailburuak proposatuta.

j) Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzorderako idazkari-lanak egiteko funtzionario bat izendatuko dute; ahotsa izango du, baina ez botorik.

2.– Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea osatuko duten lehendabiziko kideak izendatzerakoan, zuzeneko izendapena nork egin zehaztu gabe dagoenean, honako arau hauei jarraituta jokatuko da:

a) Batzordean ordezkaritza izateko eskubidea duen erakundeetako bakoitzak, hilabeteko epean, dekretu hau indarrean sartzen denetik hasita, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari jakinarazi beharko dio zein pertsona proposatu duen postu hori betetzeko.

b) Aipatutako epe hori bukatutakoan, lehenbailehen, Kultura sailburuak gainerako batzordekideak izendatuko ditu, eta, era berean, dei egingo die Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordearen lehen bilerara joan daitezen.

3.– Iraupenari dagokionez, a), b) eta c) idatz-zatietan adierazita dauden batzordekideak, izendapena ekarri dien kargua betetzen duten beste denboran egongo

g) Impulsar la colaboración con las instituciones u órganos de naturaleza pública o privada que persigan fines análogos, especialmente con el Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas

h) Cualesquiera otras funciones que colaboren en la erradicación de la violencia en el deporte.

*Artículo 4.*– Composición.

1.– Formarán parte del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte:

a) La Consejera de Cultura que ostentará la presidencia.

b) El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes que ostentará la vicepresidencia.

c) El Director de Deportes.

d) Tres representantes de las Diputaciones Forales, uno por cada Diputación Foral.

e) Dos personas designadas por la Unión de Federaciones Deportivas Vascas en representación de las federaciones deportivas vascas.

f) Una persona de la Administración municipal designada por la Consejera de Cultura, a propuesta de las asociaciones vascas representativas de los intereses municipales.

g) Una persona de reconocido prestigio en el mundo del deporte, designada por la Consejera de Cultura.

h) Dos personas de reconocido prestigio en el mundo de la seguridad, designadas por el Departamento de Interior.

i) Una persona de reconocido prestigio en el ámbito científico universitario vasco, designada por la Consejera de Cultura.

j) La o el funcionario designado para ejercer la Secretaría del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte, que actuará con voz pero sin voto.

2.– El nombramiento de las y los primeros miembros del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte respecto de los que no existe llamamiento directo se efectuará conforme a las siguientes reglas:

a) En el plazo de un mes contado a partir de la entrada en vigor del presente Decreto cada entidad que ostente representación en el Comité comunicará al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes las personas que propongan para ocupar el correspondiente puesto.

b) Finalizado el plazo señalado, la Consejera de Cultura procederá a la mayor brevedad a nombrar al resto de miembros y a convocarles a la primera sesión del Comité Vasco Contra la Violencia en el Deporte.

3.– El mandato de las y los miembros que aparecen señalados en los apartados a), b) y c) se mantendrá en tanto ostenten el cargo o la condición que haya deter-

dira agintaldian. Ildo beretik, d) eta e) idatz-zatietako batzordekideek beren zereginetan jardungo dute, izendapena egin behar duen erakundeak aldaketa egin behar dela formalki jakinarazten ez duen bitartean. Gainerako batzordekideen agintaldia lau urtekoa izango da, eta berritu ere egin ahal izango da. Kideetakoren bat hiltzen bada, gaitasunik gabe geratzen bada, karguari uko egiten badio edo antzeko zerbait gertatzen bada, joandakoari zenbat denbora falta bukatzeko, horrenbeste denborako agintaldia izango du hura ordezkatzera etorritako kide berriak ere.

4.– Aurreko paragrafoan esandako egoeretakoren baten ondorioz gertatzen diren hutsuneak hilabeteko epean beteko dira, Batzordearen Idazkaritzari egoera horren berri ematen zaionetik hasita.

5.– Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordearen buruak batzordean aztertzen diren gaietan adituak diren pertsonek bileretan parte hartzea eska dezake. Pertsona horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ezingo dute botorik eman.

*5. artikulua.*– Batzordeburua.

1.– Honako hauek izango dira, besteak beste, batzordeburuaren egitekoak:

a) Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordearen ordezkari izatea.

b) Bileretarako deia egitea Idazkaritzaren bitartez.

c) Bileren gai-zerrenda zehaztea.

d) Bilerei hasiera eta amaiera ematea.

e) Eztabaidak bideratzea: kide bakoitzari hitza emango dio, hizketaldietan moderatzaile-lanak egingo ditu, eta behar izanez gero, hizketaldi bakoitzaren iraupena mugatuko du guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten eta bilerek bilakaera egokia izan dezaten.

f) Sortzen diren berdinketak bere botoarekin ebaztea.

g) Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordearen aktak ikus-onestea.

h) Batzordeburu karguari dagozkion gainerako zereginak.

2.– Egiteko horiek guztiak batzordeburuordearen esku utz daitezke.

*6. artikulua.*– Batzordeburuordea.

1.– Honako hauek izango dira, besteak beste, batzordeburuordearen egitekoak:

a) Batzordeburua ordezkatzea, baldin eta kargu hori hutsik badago, betetzen duena kanpoan edo gaixorik badago, edo antzeko beste arrazoiren bat badago.

b) Batzordeburuak agintzen dizkion gainerako egitekoak.

2.– Egiteko horiek guztiak Kirol zuzendariaren esku utz daitezke.

minado su designación. El mandato de las y los miembros señalados en los apartados d) y e) se mantendrá en cuanto que la entidad llamada a su designación no comunique formalmente cualquier modificación. El mandato del resto de miembros será por plazos de cuatro años, renovables. De entre éstos y éstas, quienes por defunción, incapacidad, renuncia o causas similares entren en sustitución de algún miembro tendrán un mandato por el plazo que reste al anteriormente designado.

4.– Las vacantes que se produzcan por las circunstancias antes señaladas serán cubiertas en el plazo de un mes desde que se comunique tal circunstancia a la Secretaría del Comité.

5.– La Presidencia del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte podrá recabar la presencia en sus sesiones de personas especializadas en los temas que fueran objeto de tratamiento en las mismas, personas que podrán actuar con voz pero sin voto.

*Artículo 5.*– Presidencia

1.– Las funciones de la Presidencia serán, entre otras, las siguientes:

a) Representar al Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte.

b) Convocar, a través de la Secretaría, sus sesiones.

c) Fijar el orden del día de las sesiones.

d) Abrir y levantar sesiones.

e) Dirigir las deliberaciones, dando la palabra a cada miembro, moderando las intervenciones y limitando, en su caso, la duración de las mismas en aras de permitir la participación de todos ellos y de garantizar la buena marcha de las sesiones.

f) Decidir con su voto los empates que se puedan producir.

g) Visar las actas del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte.

h) Las demás que le sean inherentes a su condición de Presidenta o Presidente.

2.– Dichas funciones son delegables en la Vicepresidencia.

*Artículo 6.*– Vicepresidencia

1.– Las funciones de la Vicepresidencia serán, entre otras, las siguientes:

a) Suplir a la persona titular de la Presidencia en caso de vacante, ausencia, enfermedad o causa de similar entidad.

b) Las demás que le sean encomendadas por la Presidencia.

2.– Dichas funciones de la Vicepresidencia son también delegables en la persona titular de la Dirección de Deportes.

*7. artikulua.*– Idazkaritza.

1.– Kultura sailburuak Saileko funtzionarioen artetik izendatuko du Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordeko idazkaria; hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezingo du botorik eman, eta Saileko funtzionarioen laguntza jaso ahal izango du.

2.– Idazkari-lanetan jardungo duenak jarraian aipatzen diren funtzioak izango ditu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 25.3 artikuluan kide anitzetako organoetako idazkariei esleitzen zaizkienez gain:

a) Bileretako gai-zerrenda prestatu eta bidaltzea..

b) Batzordeburuaren aginduz, Batzordearen bileretarako deiak egitea.

c) Akta, txosten eta erabakien egiaztagiriak egitea.

d) Batzordearen dokumentuen sarrera- eta irteeraerregistroa eramatea.

e) Kide anitzeko organoetako idazkariei dagozkien gainerako funtzioak.

3.– Idazkari-kargua hutsik badago, betetzen duena kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste edozein arrazoi suertatzen bada, batzordeburuak izendatutako bokal batek edo Kultura Saileko funtzionario batek jardun dezake bere ordez.

*8. artikulua.*– Batzordeko kideen eskubide eta betebeharrak.

Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordeko kide bakoitzari honako hauek dagozkio:

a) Bileretara joatea eta bertan parte hartzea.

b) Botoa ematea, horren esanahia adieraztea, eta gehiengoarekin bat ez datorrenean, boto partikularra ematea.

c) Kide anitzeko organo bateko kide izateak dakartzan gainerako eskubide eta betebehar guztiak.

*9. artikulua.*– Funtzionamendua.

Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordeak, gutxienez, ohiko bilkura bat egingo du hiru hilabetean behin. Aparteko bilkurak batzordeburuaren ekimenez egingo dira komenigarri jotzen denean.

*10. artikulua.*– Deialdiak.

1.– Deialdiak batzordeburuaren aginduz egingo dira, gutxienez, zazpi egun naturaleko aurrerapenarekin. Eta honako hauek adierazi beharko dira: bilera zein egun, toki eta ordutan egingo den eta gai-zerrenda.

2.– Presako bileretan ez da nahitaezkoa izango deialdia aurrerapen horrekin egitea.

*11. artikulua.*– Bilkuren gai-zerrenda.

*Artículo 7.*– Secretaría.

1.– Ejercerá la Secretaría del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte la o el funcionario designado por la Consejera de Cultura entre los funcionarios y funcionarias del Departamento, quien actuará con voz pero sin voto y podrá ser auxiliado por personal funcionario de dicho Departamento.

2.– A la persona designada para ejercer la Secretaría le corresponden las funciones atribuidas a los secretarios de órganos colegiados por el artículo 25.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y singularmente las siguientes:

a) Preparar y cursar el orden del día de las sesiones.

b) Efectuar, por orden de la Presidencia, la convocatoria de las sesiones del Comité.

c) Expedir certificaciones de actas, informes y acuerdos.

d) Llevar el registro de entrada y salida de los documentos del Comité.

e) Las demás funciones inherentes a la condición de secretario de un órgano colegiado.

3.– En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, la titular de la Secretaría podrá ser sustituida por la o el vocal que designe la Presidencia o por otro funcionario o funcionaria adscrita al Departamento de Cultura.

*Artículo 8.*– Derechos y deberes de las y los miembros del Comité.

A cada miembro del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte le corresponde:

a) Asistir a las sesiones y participar en las mismas.

b) Emitir su voto, expresando el sentido del mismo, así como formular voto particular cuando discrepe del parecer de la mayoría.

c) Cuantos otros derechos y deberes sean inherentes a su condición de miembro de un órgano colegiado.

*Artículo 9.*– Funcionamiento.

El Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte se reunirá en sesión ordinaria al menos una vez cada tres meses. En sesión extraordinaria podrá reunirse a iniciativa de la Presidencia siempre que se considere oportuno.

*Artículo 10.*– Convocatorias.

1.– Las convocatorias serán realizadas por orden de la Presidencia con una antelación mínima de siete días naturales. En la convocatoria habrá de fijarse el día, lugar y hora de celebración de la sesión así como el orden del día de la misma.

2.– Quedarán dispensadas de dicha antelación mínima aquellas sesiones que revistan urgencia.

*Artículo 11.*– Orden del Día de las Sesiones.

Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordeko kideek gai-zerrendan punturen bat sartzeko eska diezaiokete batzordeburuari, betiere, behar besteko aurrerapenarekin egiten badute eta proposamenarekin batera azalpen-txosten bat aurkezten bada.

*12. artikulua.–* Erabakiak hartzea.

1.– Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordearen erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketak batzordeburuaren kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira.

2.– Botoa zuzenekoa, pertsonala eta eskuordeezina izango da, eta sekretua izango da, edozein kidek batzordeburuari hala izatea eskatzen badio.

*13. artikulua.–* Boto partikularrak.

1.– Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordeko kideek boto partikularra eman ahal izango dute gehiengoaren erabakiaren aurka, baina, betiere, bilera amaitu aurretik iragartzen badute.

2.– Boto partikularrak bilera amaitu eta bost egun naturaleko epean bidali behar zaizkio, idatziz, Batzordeko Idazkaritzari. Boto partikular horiek gehiengoaren erabakiaren testuari erantsiko zaizkio.

*14. artikulua.–* Aktak.

1.– Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordearen erabakiak aktan jasoko dira. Akta horretan honako hauek jasoko dira:

a) Bilera zein egun, ordu eta tokitan egin den.

b) Bertaratuen izen-abizenak eta noren ordez diharduten.

c) Aztertutako gaiak, eta eztabaidatutakoaren eta hartutako erabakien laburpen txiki bat.

2.– Aktak idazkariak sinatu behar ditu batzordeburuaren oniritziarekin, eta bilera horretan bertan edo hurrengoan aurkeztuko dira onartzeko.

3.– Bidezko interesa dutela egiaztatzen dutenek idazkariarengana jo dezakete onartutako testuen egiaztagiria egin diezaien.

*15. artikulua.–* Gastuak.

Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordeko kide izateagatik edo aditu gisa Batzorde horretan parte hartzeagatik ez da ordainsaririk jasoko, baina egindako gastuak eta dietak ordaindu egingo zaizkie.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko maiatzaren 25ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

Las y los miembros del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte podrán proponer a la Presidencia la inclusión de algún punto en el Orden del Día, siempre que se haga con antelación suficiente y se acompañe a la propuesta una sucinta memoria justificativa.

*Artículo 12.–* Adopción de acuerdos.

1.– Los acuerdos del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte serán adoptados por mayoría simple de miembros presentes, dirimiéndose los empates mediante el voto de calidad de la Presidencia.

2.– El sistema de votación responderá a los principios de voto directo, personal e indelegables, debiéndose garantizar el voto secreto cuando cualquiera de sus integrantes lo solicite a la Presidencia.

*Artículo 13.–* Votos particulares.

1.– Las y los miembros del Comité contra la Violencia en el Deporte podrán formular voto particular contra el acuerdo de la mayoría, siempre que lo anuncien antes de levantarse la sesión.

2.– Los votos particulares tendrán que remitirse por escrito dentro de un plazo no superior a cinco días naturales, tras la finalización de la sesión a la Secretaría del Comité. Dichos votos particulares se incorporarán al texto del acuerdo de la mayoría.

*Artículo 14.–* Actas.

1.– Los acuerdos del Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte constarán en acta, la cual expresará lo siguiente:

a) Fecha, hora y lugar de la sesión.

b) Nombre y apellidos de las y los asistentes y representación que ostentan.

c) Temas tratados, sucinta referencia de las deliberaciones y acuerdos tomados.

2.– Las actas deberán ser firmadas por el Secretario o Secretaria con el visto bueno de la Presidencia y serán sometidas a la aprobación en la misma o siguiente sesión.

3.– Quienes acrediten la titularidad de un interés legítimo podrán dirigirse a la Secretaría para que les sea expedida certificación de los textos aprobados.

*Artículo 15.–* Gastos.

La pertenencia al Comité Vasco contra la Violencia en el Deporte o la participación de personas especializadas en el mismo no dará lugar a retribución alguna, pero sus integrantes tendrán derecho al abono de los gastos y dietas.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 25 de mayo de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.